

PRENTSA OHARRA/NOTA DE PRENSA

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak azeleragailu lineal berri bat instalatu du, paziente onkologikoaren tratamendua hobetzeko

- **Iñigo Urkullu Lehendakariak bilera izan du gaur Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzuko profesionalekin, eta, horren ostean, azpimarratu nahi izan du Osakidetzak aparatu berri eta moderno honetan egindako inbertsioa mesedegarria izango dela milaka pertsonarentzat, eta, horri esker, osasun-emaitzak hobetuko direla.**
- **Azeleragailu lineal berria eskuratzeko, 3.300.000 euro inbertitu behar izan dira. Urriaren 4an abiaraziko da, eta, batetik, toxikotasun txikiagoa eragingo dio pazienteari, eta, bestetik, tratamendu-denbora murriztea ekarriko du.**
- **35 profesionalak osatzen dute Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzua, eta, hemendik aurrera, teknologiarik aurreratuen erabili ahal izango dute, urtean 1.750 paziente inguru atenditzeko, goizeko 7:30etik gaueko 22:00etara bitarteko ordutegian.**
- **Azeleragailu berri honen bidez, arreta emango zaie Bilbo barrutiko pazienteei, baita erradioterapia behar duten Barrualde-Galdakao ESiko minbizidun paziente askori ere.**

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak 4 dimentsioko azeleragailu lineal bat instalatu du, paziente onkologikoen tratamendua hobetzeko. Arlo honetako teknologiarik aurreratuenak dakar berekin aparatu moderno honek, eta 2003an abiarazitako beste bat ordeztuko du. Iñigo Urkullu Lehendakariak, Jon Darpón Osasun Sailburuak eta Jon Etxeberria Osakidetzako Zuzendari Nagusiak aparatu berria bisitatu dute gaur goizean, eta Bilbao Basurto ESiko Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzuko profesionalekin bildu dira, euren lanaren berri izateko eta azken belaunaldi teknologikoko makineria honek pazientei ekarriko dizkien onurak ezagutzeko.

Azeleragailuaz gain, Osakidetzak kudeaketako sare informatiko berria ezarri du Basurtuko Unibertsitate Ospitaleak orain dituen hiru azeleragailuetarako. Horrek **neurri handian hobetzen du pazientearen segurtasuna**, instantean ematen baitu informazioa (dosiaz, esposizio-

denboraz...) baita tratamenduen irudiak eskaini ere. Horrela, ahalik eta gehien murrizten da tratamendua egin bitartean okerrak izateko arriskua.

Azeleragailu lineal berriak, bestetik, hobekuntza berriak dakartzkio paziente onkologikoaren tratamenduari, teknika bereziak erabil baititzake berriaz hautatutako kasuetan. Gehienak, hainbat tokitako tumore-kasu edo –estadio oso goiztiarrak, tumore-karga oso baxuarekin. Ekipamendu berria urriaren 4an abiaraziko da, eta kirurgiaren alternatiba izan liteke, antzeko emaitzak lortuta betiere; hori mesedegarria izango da pertsona askorentzat, eta osasun-emaitzak hobetuko ditu. Hauek dira teknologia berriak pazienteei dakartzkien onurak: **pazienteek behar dituzten saioak murriztu egin daitezke; dosi handiagoa eman daiteke tumorearen gainean; toxikotasun txikiagoa pazientearentzat; eta, tratamendu-denbora murriztea.**

Ildo horretan, Iñigo Urkullu Lehendakariak hau nabarmendu du: **“jarraituko dugu inbertsioa egiten euskaldunen osasunari begirako teknologia berria eskuratzeko. 4 dimentsioko azeleragailu berri honez gain, beste bat instalatu da duela gutxi Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean, eta, datorren urtean, beste bat instalatuko da Donostiako Unibertsitate Ospitalean. Izan ere, Osakidetza merkatuko teknologiarik aurreratuenak eskaini nahi dio euskal gizarteari, horrela zerbitzurik aurreratuenak eta onuragarrienak izan ditzaten horien beharrean dauden euskaldunek”**.

4 D tratamenduak

Osakidetza **3.300.000 euro inbertitu ditu** kanpo-erradioterapiako teknologia berri hau eskuratzeko, eta, horri esker, **tratamendu askoz zehatzagoak** egin daitezke (4 D izenekoak), eta tumorea mugimenduan irradiatzeko aukera eskaintzen du. Horri, **zehaztasun handiko erradioterapia** esaten zaio.

Tumorea mugitzen den kasuetan (birikako nodulu tumoralean adibidez, pazientearen arnasketarekin), eremu handiak irradiatu behar izaten ziren, nodulua arnasa-mugimendu guztietan hartzeko, eta, horrela, ehun osasuntsuari ere eragiten zitzaion. Azeleragailu berri honek aurrerapen handia ekarri du, hau da, mugimenduari jarraiturik irradiatzea ahalbidetzen du. Horrexerri esaten zaio 4D tratamendua egitea: OTA bat mugimenduarekin egiten da (4D), tumorearen bolumena zehazteko, eta marraztu eta mugimenduan ikusi ahal izateko. Horri esker, azeleragailu berriak hobeto kontrolatzen du tumorea, eta dosi handiagoa eman dezake tumorearen gainean; bestetik, gutxiago eragiten dio ehun osasuntsuari, eta, beraz, txikiagoa da tratamenduaren toxikotasuna.

Kualifikazio handiko hainbat profesionalak osatzen dute Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzua, gaur Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak bisitatu duena. Bertan, 35 profesional ari dira, goizeko eta arratsaldeko txandetan, 7:30etik 22:00etara bitarteko ordutegiarekin: 10 mediku, 5 erradiofisikari, 6 erizain eta erradioterapiako 14 teknikari. **Azeleragailu berria bete-beteko funtzionamenduan dagoenean, 150 pazienteri emango diete arreta egunean, eta paziente horiek, batez beste, 20-25 saio izango dituzte.**

Langile horiek prestakuntza jasotzen ari dira teknologia horren gainean, eta, ikuspuntu profesionaletik, abantaila handiak izango dituzte, hala nola segurtasun handiagoz lan egitea eta

tratamendu-teknikarik berrienak ezagutzeko aukera izatea. Gainera, azeleragailu berria dela-eta, plantilla erradioterapiako hiru teknikari gehiagorekin handitu da.

Bat dator Euskadiko estrategia sanitarioarekin

Ekipamendu berria beste aurrerapauso bat da **Osakidetzak eta Osasun Sailak batera duten estrategia-asmoari dagokionez: euskal osasun-sistema publikoaren kalitatea handitzea**, pazienteei eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko, segurtasun klinikoa bereziki zainduta. Gainera, minbiziaren arretaren arloan, diziplina anitzeko ereduia sustatu nahi da, pazienteari arreta integrala eskaintzen dion ereduia hain zuzen ere; eredu horrek, gainera, aukera diagnostiko terapeutikorik onena eskaini behar du, baita asistentzia-baliabideen arteko koordinazioa ahalbidetu ere; azkenik, aintzat izan behar du pazienteari eta senideei eman beharreko laguntza psikosoziala.

Bizkaiko lurralde historikoak **6 azeleragailu lineal** ditu Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen eta Gurutzetakoaren artean: horrek ziurtatu egiten du **erantzun egokia** eman ahal zaiela lurralde honetan urtean arreta behar duten **3.100 paziente onkologiko ingururen beharrei**. Azeleragailu berri honen bidez, Onkologia Erradioterapikoko Zerbitzuak arreta emango die Bilbo barrutiko pazienteei, baita erradioterapia behar duten Barrualde-Galdakao ESiko minbizidun paziente askori ere.

Laster, Iñigo Urkullu Lehendakariak esan duenez, Donostiako Unibertsitate Ospitaleak beste azeleragailu bat izango du, antzeko ezaugarriak izango dituena: **"horrela, Gipuzkoako teknologia ere hobetuko da, pertsonen zerbitzuan betiere, eta aurrerapauso kualitatiboa izango da pazienteen arreta hobetzeari begira Osakidetzako zerbitzuen artean egin beharreko koordinazioari dagokionez; bestetik, zerbitzuen integrazio handiagoa ekarriko du, eta, horrela, zerbitzu horiek eraginkorragoak eta jasangarriagoak izango dira"**.

**El Hospital Universitario Basurto instala un nuevo
acelerador lineal que mejora el tratamiento del paciente
oncológico**

- El Lehendakari Iñigo Urkullu tras reunirse con los y las profesionales del Servicio de Oncología Radioterápica del Hospital Universitario Basurto ha destacado que la inversión realizada por Osakidetza en este nuevo y moderno aparato va a permitir beneficiar a miles de personas y mejorar los resultados en salud.
- El nuevo acelerador lineal con una inversión de 3.3000.000 euros, se pondrá en funcionamiento el próximo 4 de octubre y supondrá una menor toxicidad para el paciente y la reducción del tiempo de tratamiento.
- El Servicio de Oncología Radioterápica del Hospital Universitario Basurto está compuesto por 35 profesionales que a partir de ahora contarán con la tecnología más avanzada para desarrollar su trabajo y poder atender alrededor de 1.750 pacientes al año en horario de 7.30 de la mañana a 22:00 de la noche.
- Con este nuevo acelerador se atenderá a los y las pacientes del área de Bilbao, así como a una parte sustancial de los pacientes con cáncer de la OSI Barrualde-Galdakao que precisen radioterapia.

El Hospital Universitario Basurto ha instalado un acelerador lineal de 4 Dimensiones que mejorará el tratamiento de los y las pacientes oncológicos. Se trata de la tecnología más avanzada en este campo y el nuevo y moderno aparato sustituye a otro que fue puesto en marcha en 2003. El Lehendakari Iñigo Urkullu, acompañado del Consejero de Salud, Jon Darpón y el Director General de Osakidetza, Jon Etxeberria, ha visitado esta mañana el nuevo aparato y se ha reunido con los y las profesionales del Servicio de Oncología Radioterápica a fin de conocer la labor que desempeñan y los beneficios que esta nueva maquinaria de última generación tecnológica va a suponer para los y las pacientes.

Además del acelerador, Osakidetza ha incorporado también una nueva red informática de gestión para los tres aceleradores actuales del Hospital Universitario Basurto que **incrementa notablemente la seguridad del paciente**, al permitir disponer de información como la dosis o el tiempo de exposición al instante así como las imágenes de los tratamientos minimizando al máximo la posibilidad de error durante el tratamiento.

El nuevo acelerador lineal **añade nuevas mejoras en el tratamiento del paciente oncológico**, ya que tiene la capacidad de realizar técnicas especiales en casos muy seleccionados. La mayoría, casos o estadios muy precoces de tumores en diferentes localizaciones, y con muy baja carga tumoral. El nuevo equipamiento, que entrará en funcionamiento el próximo 4 de octubre, se puede convertir en alternativa a la cirugía obteniendo similares resultados lo que va a beneficiar, sin duda, a muchas personas y a los resultados en salud. Los beneficios que aporta la nueva tecnología para los y las pacientes son: **la posible reducción de sesiones necesarias en cada paciente, el incremento de la dosis sobre el tumor, una menor toxicidad para el paciente y la**

reducción del tiempo de tratamiento.

En este sentido, el Lehendakari Iñigo Urkullu ha resaltado que **“seguiremos invirtiendo en nueva tecnología al servicio de la salud de los vascos y vascas. Este nuevo acelerador lineal de 4 dimensiones se suma al acelerador instalado recientemente en el Hospital Universitario Cruces y al que se instalará el año que viene en el Hospital Universitario Donostia porque Osakidetza, quiere ofrecer a la sociedad vasca la tecnología más avanzada del mercado para poner así al servicio de todos los vascos y vascas que lo necesitan los servicios más punteros y que mayores beneficios les pueden aportar”.**

Tratamientos en 4D

La nueva tecnología instalada de Radioterapia externa en la que **Osakidetza ha invertido 3.300.000 euros, permite tratamientos mucho más precisos**, denominados 4D, e irradiar el tumor en movimiento; es la denominada **radioterapia de alta precisión**.

Cuando el tumor se desplaza debido a su movimiento, como es el caso del nódulo pulmonar con la respiración del paciente, era preciso utilizar campos grandes para radiar el nódulo en todos los movimientos respiratorios, afectando con ello a tejido sano. El gran avance que permite este nuevo acelerador es irradiar siguiendo el movimiento, lo que denominamos tratamientos en 4 D: Se realiza un TAC con movimiento (4D) para obtener el volumen del tumor, poderlo dibujar y ver en movimiento. Gracias a ello, el nuevo acelerador consigue mayores niveles de control tumoral, puede aumentar la dosis sobre el tumor a la vez que tiene un menor efecto sobre el tejido sano, disminuyendo, por lo tanto, la toxicidad del tratamiento.

El equipo humano de Oncología Radioterápica que ha recibido hoy la visita del Lehendakari del Gobierno Vasco está compuesto por diferentes profesionales con alta cualificación profesional. En turno de mañana y tarde, y con un horario de 7.30 a 22 horas, trabajan 35 profesionales: 10 médicos, 5 radiofísicos, 6 enfermeras, 14 técnicos/as de radioterapia que **atenderán a 150 pacientes al día, que reciben una media de entre 20 y 25 sesiones, cuando esté el nuevo acelerador en pleno funcionamiento.**

Para los y las profesionales la implantación de esta nueva tecnología en la que ya se están formando, supone también importantes ventajas como poder trabajar con una mayor seguridad y acceder a las técnicas más novedosas en tratamientos. Además, el nuevo acelerador ha supuesto un incremento de plantilla de tres técnicos/as de radioterapia.

Acorde con la estrategia sanitaria de Euskadi

El nuevo equipamiento es **un paso más en la estrategia conjunta de Osakidetza y el Departamento de Salud para aumentar la calidad del sistema sanitario público vasco**, para mejorar el servicio a los y las pacientes, incidiendo especialmente en la seguridad clínica. Además, promueve un modelo multidisciplinar de atención al cáncer, orientado a la atención integral del paciente, que ofreciendo la mejor opción diagnóstico terapéutica facilite la coordinación de los diferentes recursos asistenciales y tenga en cuenta el apoyo psicosocial al

paciente y familiares.

El territorio histórico de **Bizkaia dispone de 6 aceleradores lineales** entre el Hospital Universitario Basurto y Cruces, lo que asegura una **adecuada cobertura a las necesidades de la población de un territorio que atiende alrededor de 3.100 pacientes oncológicos al año**. El servicio de Oncología radioterápica atenderá con este nuevo acelerador a los pacientes del área de Bilbao, así como a una parte sustancial de los pacientes con cáncer de la OSI Barrualde-Galdakao que precisen radioterapia.

Próximamente, tal y como ha señalado el Lehendakari Iñigo Urkullu, el Hospital Universitario Donostia contará también con otro acelerador de similares características **“lo que supone mejorar también la tecnología en Gipuzkoa al servicio de las personas y un paso cualitativo en la coordinación de servicios de Osakidetza en pro de la mejor atención de los y las pacientes, y una mayor integración de los servicios para ser más eficaces y más sostenibles”**.

OSI BILBAO BASURTO
Komunikazio Unitatea
Unidad de Comunicación
Tel. 944006084/ 944003960/ 944003958

Email:

UNIDAD.COMUNICACIONOSIBILBAOBASURTO@osakidetza.net



Bilbon, 2016ko irailaren 29an
En Bilbao, a 29 de septiembre de 2016